

Informazioa eta izena ematea

Ondarroako Udaleko euskara sailean: 94 683 36 68
mrey@ondarroakoudala.net

Jardunaldian izena emateko 20,00 euro (bazkaria barne) sartu behar dira Ondarroako Udalaren kontu-korrente honetan:
Bilbao Bizkaia Kutxa 2095 0058 12 3830434777
Eta diru-sarreraren agiria fax-zenbaki honetara bidali:
94 683 36 67

Izema emateko epea: azaroaren 6tik 27ra.



laguntzaileak:



Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia



Ondarroako Udala

antolatzailea:

X/E/DSGN



herri hizkeraren gaineko II. jardunaldia

Ondarroan, 2007ko azaroaren 30ean

Kofradia Zaharrea



Euskarak indarra behar du ezerean gainerik; erabileran eta beraz, hizkuntza komunikatiboan asmatzean dago gakoa, zalantzarik gabe, datozen urteei begira. Eta gurean, gaur egun, indarra, zalantzarik gabe, herri hizkeretatik etorriko zaigu: kalitatea eta distira.

Aberastasun handia da herri-hizkera; baina errealistak izanda, badakigu zer gertatzen den altxorrik preziatuenekin ere, museoko pieza bihurtzen zaizkigula; guk, ostera, bizirik behar ditugu, eta erabili.

Herri-hizkeraren gainean jardun genuen Ondarroan duela urtebete, gaia zabal hartuta, eta horrexetara gatoz, berriro ere, hizkuntza eguneroko lanabesa duten adituen ekarpenek lagunduta, gogoetak eta iritziak zabaltzera, eta, aldi berean, indarrak batzera.

Felix Aranbarri Urizarbarrena
Ondarroako Udalburua

9:00 - 9:30

Dokumentazioa jaso eta jardunaldiaren aurkezpena

09:30 / 10:30

Bizkaiera eta Batua (b)uztarturik
Adolfo Arejita eta Nagore Etxebarria
LABAYRU ikastegia

Labayru Hiztegiak bizkaierako eta euskalki guztietako berba eta esamoduak batzen ditu: Ez da, beraz bizkaiera hiztegi bat, bizkaiera ardatza duen hiztegia baino.

Ahozko euskera biziaren zertzelada asko dakaz baturik. Horretan dagoala esan leiteke hiztegiaren ekarriak onuratsuenak. Guretzat euskera, euskaldunek egiten dabena da sakonean, horrek dauka lehentasuna. Hiztegiari begiratu bat egitea baino ez dago ikusteko, berba bakotzeko adibideak euskaldun zehe jator batek esango leukezaten antzekoak dirala.

Idatzizko tradizioa guztiz aintzat hartu dogu, baina, idatzia Galdere-erantzunak*

10:30-11:30

Ahokotasuna eta herri hizkerea
Eneko Barrutia
MENDEBALDE alkarte

- 1 Ahokotasunaren ganeko gogoeta labur batzuk.
- 2 Ahokotasuna zelan aztertu dan: herriko euskera zelan ikertu dan, han-hor-hemen egin diran behar garrantzitsuenen barri.
- 3 Ahokotasuna zelan landu: metodologiak. Zelako metodologiak erabilten diran eta zeintzuk diran arazoak batzuetan.
- 4 Ahokotasunetik, herri hizkeratik, zer hartu leiteken.

Galdere-erantzunak*

12:00-13:00

Gehixago eta hobeto programa
Estepan Plazaola
Bergarako Udaleko euskara teknikaria

Berba egiterakoan euskara egokia erabiltzera bultzatzeko programa da Gehixago eta Hobeto. Ahal den neurrian, bergararren ahoko euskara hobetzea lortu nahi da; eta, batez ere, akats ohikoenak zuzentzea. Eta, Bergaran, normalean, ahoko komunikazioan euskalkia erabiltzen denez, programak ere euskalkia du langai.

Programan ume eta gazteekin loturaren bat duten sektore guztiak (eskolak, denbora libreko taldeak, familia...) hartzen dira kontuan eta hainbat material gertatzen dira: eskoletan lantzeko unitate didaktikoak, akatsen azalpenak gurasoentzat, Apatxi aldizkaritxoak...

Programa 1999-2000 ikasturtean sortu zen eta honakoak dira bertako partaideak: herriko ikastetxeak, Udaleko Euskara Zerbitzua, JARDUN Euskara Elkartea, Eibarko Berritzegunea.

13:00-14:00

Tokiko euskara batua Goienaren estilo liburuan
Iban Arantzabal
ikus-entzunezkoen zuzendaria
Goiena komunikazio zerbitzuak koop. E.

Goiena sortu orduko kezka da herri hizkerena, Arrasate press, Goibekokale edo Berrigara zegoenetik. Goiena, konplexua da sortzez, Debagoieneko herri komunikabideen batura. Aldizkariez elkartu egin ziren, baina osieran herriz herriko euskara elkarteak daude eta kooperatibaren gehiengoa izateak badakar hizkerari bere garrantzia ematea, nola ez. Euskara hutsezko jarduna dugu bestalde, eta horrek ere zer pentsatua eman digu: noiz erabiliko dugu Arrasateko hizkera? Noiz Elgetakoa? Noiz Oñatikoa? Zein hedabidetan: telebistan?, paperean?, ahokoan bakarrik? Gure jarduna 65.000 biztanleri zuzendutakoa da, 9 herriri, eta lau hedabide erabiltzen ditugu horretarako. Gure hedabideetan, lauretan, irizpide batzuk baditugu, baina oraindik ere nahiko aukera malgua izaten jarraitzen du euskalkia edo estandarra hautatzeak. →

Pausoak eman dira, hala ere. Euskara arduradun bat badugu komunikazio multimedia osatzen dugun hedabide multzo honetarako eta horren haritik aurretan banatu dugu kazetarien artean estilo liburu bat. Estilo liburu horretan euskaraz nola egin behar den ere esaten da, baina ez bakarrik. Euskalkia erabiltzerakoan nola egin behar den ere esaten da. Atal hori deitzen da: Tokiko euskara batua

Tokiko euskara batua: Debagoieneko ezaugarriak dituen proposamena da. Ez da hizkera berri bat, herriz herrikoari eusteko proposamena da, baina arau batzuk emanda, batez ere, idatzirako. Ezaugarri morfologiko, fonologiko, lexiko eta abarrekoak aipatzen dira estilo liburuak zazpigarren atalean.

Galdere-erantzunak*

Jardunaldiaren amaiera eta bazkaria